



**EMAKUNDE**

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**NAHIKO! 5-6**

**Ez NAIZ  
BAKARRIK  
BIZI**

**4**

UNITATE  
DIDAKTIKOA

## FAMILIAREN KOADERNOA

**1**

**HORRELA BIZI BAGINA BETI...**

IKASLEEK FAMILIAREN  
LAGUNTZAREKIN EGITEKO

Etxekoei galdetu eta idatz ezazu behekaldean ezkerrean zure familiaren sasoi bereziki zoriontsu bat. Denok oso pozik bizi izan zenutena. Harreman familiar onen garai bat. Eta, eskubi aldean, zergatik izan zen hain zoragarria sasoi hori.

ZORION EGUNAK

ZERGATIK HAIN ZORAGARRIAK?

**IZENA**

## 2

## MAITASUNAREN TERMOMETROA

IKASLEEK FAMILIAREN  
LAGUNTZAREKIN EGITEKO

## MAITE AL DUT PERTSONA HORI?

PERTSONA BAKOITZARI BURUZKO GALDERAK, ZUK ERANTZUTEKO

	1	2	3	4
1.- Nere gustukoa al da? Atsegina iruditzen al zait?				
2.- Ikusteak bakarrik sutan jartzen al nau?				
3.- Bera baino gehiago naizela uste al dut?				
4.- Nik nahi bezalakoa izan beharko litzateke?				
5.- Berarekin harreman on bat izan nahi al dut?				
6.- Aspergarria eta higuigarria iruditzen al zait?				
7.- Berak nahi duen bezala izateko eskubidea al du?				
8.- Berarekin egoteko denbora hartzen al dut?				
9.- Errespetuz hitz egiten al diot?				
10.- Entzuten al diot hitz egiten didanean?				
11.- Garrasi egiten al diot? Zakarra al naiz berarekin?				
12.- Barre egiten dut berarekin? Ondo pasatzen al dut?				
13.- Laztanten dut, muxukatu eta besarkatzen al dut?				
14.- Nere etxekolanak berak egitea nahi al dut?				
15.- Berarekin beti arrazoia izan nahi al dut?				
16.- Inoiz jo edo mehatxatu egin al dut?				
17.- Nere gauza onak eta txarrak kontatzen al dizkiot?				
18.- Gaizki eginak barkatzeko eskatzen al diot?				
19.- Berak neri gaizki eginak errez barkatzen al dizkiot?				
20.- Behar dudanean laguntza eskatzen al diot?				
21.- Etxekoen eta nere zerbitzaritzat hartzen al dut?				
22.- Berak lagun asko edukitzea gustatzen al zait?				
23.- Lagunekin doanean, haserretu egiten al naiz?				
24.- Barre egiten al dut beretaz nere lagunekin?				
25.- Beti nerekin bakarrik egotea nahi al dut?				
26.- Bere arrakasta eta ospearekin pozten al naiz?				
27.- Bere lana inportantea al da neretzat?				
28.- Lana utzi beharko luke etxekoak zaintzeko?				
29.- Bere lana egiten laguntzen al diot?				
30.- Laneko proiektuez galdetzen al diot?				
31.- Axola al zait lanean nik baino arrakasta eta soldata handiagoa (emaitza hobegoak) izatea?				

Maite al zaitu aitak? Eta bere emaztea maite al du? Ahizpak maite al zaitu? Eta... Jadanik ezagutzen duzun galdeketa erabiliz, maitasunaren termometroa jarri zure familiakoei, maitasuna ikusi, ezagutu eta dastatzen ikasteko. Behekaldean, termometroa betetzeko klabeak dituzu: galdera bakoitzean agertzen den erantzuna ematen dizutenean, borobil bat margotu behar duzu termometroan azpikaldetik hasita.

IZENA

IZENA

IZENA

IZENA

1 BAL 2EZ. 3EZ. 4EZ. 5BAL 6EZ. 7BAL 8BAL  
 9BAL 10BAL 11EZ. 12BAL 13BAL 14EZ. 15EZ.  
 16EZ. 17BAL 18BAL 19BAL 20BAL 21EZ. 22BAL  
 23EZ 24EZ. 25EZ 26BAL 27BAL 28EZ. 29BAL  
 30BAL 31EZ.

## 3 INOIZ EZ

FAMILIAKOEK  
SINATZEKO

Gure etxean, gure familian, **GIZA ESKUBIDEEN ALDARRIKAPENAREN 5. ATALA** beti eta salbuespenik gabe beteko dugula aitortu nahi dugu. Beraz,

**Gure etxean, gure familian, ezin daiteke inor torturatu, ezta inori zigor edo tratu txar, anker eta lotsarazlerik eman ere.**

### SINADURAK


## 4 HAUNDITZEN NAIZENEAN

IKASLEEK FAMILIAREN  
LAGUNTZAREKIN EGITEKO

Bizitzaren legea jarraituz, egunen batean, etxetik joango zara, eta zure etxea izango duzu. Heldua zarenean, tokatu zaizun oraingo familia utzi ("noizbehinkakoa" bilakatuz), eta zuk aukeratutako eguneroko familia izango duzu. Galdetu iezaiezu oraingo zure familiakideei zer opa dizuten ordurako, egun horretarako.

### NORK ESANDA

### NERE FAMILIA DUDANEAN
